

OFIZIO ETA TITULU NORTASUNA HONDARRIBIKO ETXE-IZENETAN

1993.05.20

Juan San Martin

Antroponimia, patronimia eta toponimia, hara hor Euskal Herriko adibide nagusiak etxe eta deitura izenen jatorritzat. Hondarribia har dezagun adibidetzat eta kale kaskotik kanpora aurki genitzakeen etxe-izenik gehienak, baserriak barne direla, noski: pertsona-izena, jatorrizko deiturarena (nahiz bataio-izenetikakoa zein ezizen edo izengoitizkoa) edo leku-izenetikakoak aurkituko ditugu maizenik. Baina, horiez gainera, bada dira titulu edo ofiziozkoak ere. Azken hauek, benetan interesgarriak historian zehar nor zein zen edo zertan ari zen jakiteko. Baita ere izen hori noizdanik datorren jakitea. Horien lehen agiriak atzematea gauza nekeza baldin bada ere, horretan ahalegindu gara.

Artikulu honetan emango ditut hamar etxeren zenbait adibide:

Jaizkibel mendiko hondar-harria, bertako euskarari mimarria deritzona, etxegintza eta elizak eraikitzeke hain estimagarria zen garaian, harginik ez zen faltako Hondarribian. Horren lekukorik aski bada agiri zaharretan zein Jaizkibel mendiko harrobi zaharretan. Baina, norbait bazen garairen batean ofizio horretan besteak baino trebeagoa edo berezitasun nabarmenak erakutsi zituena, dohain horiengatik etxe bat izendatzen baita Argiñenea; 1887. urtean Floridablanca kontearen aginduz egin zen zentsuan, han baitator *Arquiñenea*.

Arotz ofiziodunaren etxea dugu ordea Arotzena; 1787ko zentsu zere-rendan *Arozena* eta 1857. urtean Diputazioak argitaratu zuen *Nomenclátor de la Provincia de Guipúzcoa* liburuan, *Arotsena* bezala aurkitzen duguna. Hortik ikus, behar bada, ordurako nahastuak zirela *z* eta *s*-ren arteko bereizketa gure herrian.

Gaur egun Balestenea izenez ezagutzen dena, *Ballestarianea* zen 1787an, eta *Ballestanea* 1857an. Ballesta, armarena ala zalgurdiarena ote zen? Azken honena segururenik. Dena dela, hor dugu ofiziodun baten izenaren lekuko.

Oso ezaguna zaigu Batxillerenea ere, 1787ko zentsu hartan *Bachillerenea* bezala agertzen zaiguna. Gaur egun, zerbait ikasia den guziek dute batxiller titulua, baina hemezortzigarren mendean ez zen nornahi.

Orain hain ezaguna zaigun Biskundi auzoak, bere izena, lehen toki hartan zen etxe batetik hartua du. Etxe hura, 1857. urtean *Viskundinea* bezala agertzen da probintziako *Nomenclatorrean* eta, zalantzarik gabe, bizkontearen etxea zela erakusten du.

Ttun-ttun joleak emango zion izena Danboliñenari. Hau ere, gu-tenez, hamazortzigarren mendetik datorkigu, 1787an *Tanboliñenea* eta 1857an *Danboliñenea* agertzen denez.

1787an *Herreronea* eta 1857an *Erreronea* agertzen zaiguna, behar bada, ofiziozkoa ezezik deituratikakoa izan daiteke, zeren 1638rako Hondarribian bertan agertzen baita deitura hori, Miguel de Aguinaga y Herrero. Handik hasia ote? Garai haietan erraz egiten baitzuten lehen deitura bigarrengoarekin trukatzea ere.

Edonork dakien bezala, Hondarribiko baserri baten izena da Ipiztiku. Bat-batean izen arraroa edo bitxia iduritzen zaigu. Etxe horren lehen berria Isastik eman zigun 1625.urtean idatzi zuen *Compendio Historial...* liburuan, *Castezar ó Ipizticu* izendatuz. Gaur egun Lapurdin erabiltzen den apezpiku (obispo, gure egunotako gotzaina). Axularrek 1653an argitaratu zuen *Gero* liburuaren “Gomendiozko karta” hartan Bertrand de Echaus apezpikuari era honetan egiten zion eskaintza: “... çuc ere Baionaco Ipizticu cinenean”, esaldiaren muinean esanahia aitortuz. Ubillos gipuzkoar idazleak ere hala erabili zuen 1785.ean argitaratu zuen *Christau doctriñ berriecarlea* zeritzan liburuan. 1857. urteko *Nomenclatorrean* berriz, Hondarribiko bi etxek daramate izen hori, batak *Ipisticu* eta besteak *Ipisticunea*. Argi dago lehenengoa dela zaharra eta bigarrena handik alde zuen familiakoren batek eraikia. F. Porturen *Fuenterrabia. Notas históricas y curiosidades* liburuan aurkituko ditugu biak, 306. orrialdean, sagardotegiak aipatzean; bi etxeotan baitziren sagardotegiak 1934. urtea baino lehen. Ipiztiku Arkoll goiti Jaizubia aldera eta Ipiztikunea Madalengainetik Akartegi partean. Miguel de Lizardi Ipisticu herriko seme jatorren artean agertzen da 1638. urteko zerrendan. Guk aipatzen dugun baserria ipiztikuren baten egoitza edo jabegokoa zen, noski. Bertako semeetarik bat bazen XVI. mendean Cristobal de Rojas y Sandoval, zeinengandik datorren hirian “Calle del Obispo” eta ditekeena pertsonaia horrekin zerikusirik (1).

(1) Pertsonaia horri buruz, ikus *Hondarribia* aldizkariaren 44. zenbakian argitaratutua nuen “Cristobal de Rojas y Sandoval (1502-1580)” idazlana, 16-17.orrialdeetan.

Konsul zenaren etxeak ere, bere izena hartu zuen, Konsulanea, 1787.eko zentsu hartan agertzen denez. Orain *Consolenea* bezala agertzen da (behar bada ahoskatzean hala erabiliko zuten), baina 1857ko *Nomenclator*aren zerrendan argi dator, Consulaenea. XVI. mendetik XIX.era arte, Itsas-kofradiak izendaturik, bi “Jueces Cónsules de Mar” izaten ziren arartekotza betetzeko, 1566. urteko Ordenantzek jasotzen dutenez eta horien egitekoa zen portuko gorabeherak zaindu eta auziak konpondu. Bizkaiko zenbait portutan “Instruman” deitzen zitzaien.

Telleria, 1787ko zerrendan aipatzen da, baserri etxe hori hutsik zegoela aditzera emanez, baina 1857ko etxe-zerrendan berriz dator. Geroztik galdua da nonbait. Egia esan, Telleria, ofizio bera baino areago zen lantegia, baina teilagina edo teilaginak ere bazirela adierazten digu.

Horietatik ohartuko gara etxe-izen bakoitzak zer-nolako adibideak ematen dituen, deiturentzat ezezik biztaleen ogibide eta ekintzak ezagutzeko; horiei esker, ulerterrazago egingo zaizkigu ondare bezala historia-arentzat eskaintzen dizkiguten adibide jakingarriak.